

**inposaketarik ez!**

# euskal herriak bere unibertsitatea!

## *Europatik aldaketa garaia*

Aldaketa haizeak datoz Europatik. Iragan mendeko 50. hamarkadan abian jarritako konbergentzia prozesuak aurrera egin du etenik gabe urte luze hauetan. Hasiera batean merkantzien mugikortasun librea helburu zuen prozesu hurak bestelako eremuetara zabaltzen joan du bere eragina. Asko dira hamarkada hauetan kontinente zaharraren barne antolaketa ekonomiko, politiko, administratibo eta sozialean emandako aldaketak: estatuen mugetatik haratago dauden erabaki markoen sorrera, konbergentzia ekonomikoaren bidean emandako urratsak, Europa mailako araubidearen agerpena eta abar luze bat.

Hezkuntza, eta horren baitan goi mailako hezkuntza, ez da prozesu horretatik at gelditu den eremua. 1999ko ekainean Europar Batasuneko hamabost ministroek Bolognako Deklarazioaren izendapenarekin ezagutu zen manifestua horren abiapuntua izan zen. Bertan finkatzen ziren Europako eremu unibertsitarioaren kohesiorako oinarritzko gakoak: titulazioen konbalidaziorako mekanismoak, bi zikloetako ikasketa sistema, kreditu sistema bakarraren orokortzea (ECTS), ... Deklarazio horren izena hartu zuen prozesuak garapen handia ezagutu du zortzi urte hauetan eta 2010erako gako horien erabateko aplikaziorako mekanismoak martxan egotea aurreikusten da. Zalantzarik gabe prozesu honek goitik behera eraberrituko du Europa mailako eremu unibertsitarioa.

## *Unibertsitate eremuaren berrantolaketa frantziar eta espainiar estatuen aldetik*

Gurean jada hasiak dira aldaketa prozesu horren lehenengo zantzuak agertzen: Espainia zein Frantziako gobernuak unibertsitate eremua berrantolatzeko normatiba berria indarrean jarri dute azken urteotan (LOU zein *Fillon* legea); ECTS kreditu sistema irakasgai batzuetan aplikatzen hasi da; EAEko erkidego autonomikoan aipatutako normatibari egokitzeko legedia abiatu zen... Esan bezala Bologna Prozesuak aldaketaren atarian kokatzen du Europako eremu unibertsitarioa eta Euskal Herrikoa ez da salbuespena. Agerikoa da gure herriko eremu unibertsitarioak aldaketak beharrezkoak dituela; baina zeintzuk dira zehazki eman beharreko aldaketa horiek? Zeinek erabaki behar du aldaketa horien norabidea? Nora begira eta zeren arabera jarri behar dugu Euskal Herriko unibertsitate esparrua?

## *Unibertsitatearen ezaugarritzea*

Gure ustez, unibertsitateak, izatez, honako bi funtzio nagusi ditu:

- Indibiduala: hezkuntza prozesu orokorraren baitan kokatuta, norbanakoen goi mailako formakuntza eta garapenari dagokiona; lan munduan murgiltzeari ere lotzen zaiona.
- Kolektiboa: herrien eta kolektibitatearen garapen sozial, kultural eta zientifikoari lotuta dagoena.

Funtzio hauek elkarri elikatzen diote eta bata bestearengandik bereiztezinak dira: zer nolako pertsonak hezi, horrelako gizartea izango dugu; zer nolako gizartea nahi, horrelako pertsonak hezi beharko. Are eta gehiago, berreraikuntza prozesu batean murgilduta dagoen gurea bezalako herri batean.

Beraz, hiru dira une honetan esku artean ditugun aldagaiak: lehenik eta behin, Bologna Prozesuaren eskutik emango den eraldaketa prozesua; bigarrenik, unibertsitateari egokitzen dizkiogun funtzio nagusiak, indibidualak eta kolektiboak; eta azkenik, Euskal Herriaren testuinguru sozio-politiko. Hiru hauek aintzat hartuta, honako bi galdera luzatzen dizkiogu hezkuntza komunitateari eta euskal gizarteari oro har: Bologna Prozesuaren eskutik eratoritzen diren aldaketek Euskal Herriaren beharrei erantzuten al diete? Hezkuntza jaiotzetik hasi eta pertsonaren bizitza osoan zehar luzatzen den prozesu bezala ulertuta, zeintzuk dira goi mailako hezkuntzan eta zehazki, unibertsitate esparruan, eman beharreko aldaketak?

## *Inposaketarik ez! Euskal Herriak Bere Hezkuntza bergogoratu*

Orain dela lau urte manifestu honen sinatzaileok Hezkuntza Deialdiaren dinamikaren baitan Espainiako Alderdi Popularraren hezkuntza erreformari eta Frantziako Gobernuaren eskutik bizi den hezkuntza eskubideen zanaketa egoerari erantzuteko premia sentitu genuen. Erreforma hori gure herriaren hezkuntza beharren bizkarretara eginda zegoela salatu eta Euskal Herriak bere hezkuntza behar duela aldarrikatu genuen. Garai horretan bildutako batzuk berriro ere testuinguru berdinean aurkitzen garenaz jabetzen gara. Hala ere, berdintasun horrek ez du estaltzen egoera konkretu horretatik egungora ematen diren aldaketak: orduko prozesua estatuen hezkuntza erreformen eskutik zetorkigun, oraingoa, aldiz, Europatik; baina bietako baten batean galdetua izan al da euskal hezkuntza komunitatea zein euskal gizartea eman beharreko aldaketen gainean? Eta bestetik, oraingo aldaketa prozesua unibertsitate esparruari zuzenduta dago, baina ez bakarrik; esan bezala, hezkuntza prozesu oso eta bakar bezala irudikatzen baitugu, derrigorrezko eskolalditik haratago doana eta kokatzen den herriarekiko aipatutako funtzioak betetzen dituen.

Edozein kasutan hezkuntza, eta kasu honetan unibertsitateak, herri baten garapenari begira duen garrantzia aintzat hartzen dugu eta honen norabidetzean hezkuntza komunitateko kideok eta euskal jendarteak, oro har, izan behar dugun aitzindari lana ipar orratz bezala hartzen dugu. Bologna gure bizkarrera burutzen ari den eta inposatzen ari zaigun prozesua bezala irudikatzen dugu.

Gure historia hurbilean ez da lehenengo aldia Euskal Herriko eremu unibertsitarioa tamaina horretako berrantolaketa baten aurrean dagoena. 70. hamarkadaren bukaeran Hego Euskal Herria zatitua zegoen bi barrutiak (Zaragoza eta Valladolidekoa) berdefinitu ziren: batetik, Nafarroa eta bestetik, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa bilduko zituen. Orduko aldarriak Hego Euskal Herriko unibertsitate esparrua antolatzeke eskubidea eta, horren formulazio praktikoa bezala, lau herrialdeak bilduko zituen barruti bateratua ziren. Baina atzo, gaur bezala, unibertsitate ereduaren berrantolaketa aurrean aurkitzen garenean, gure hitza adierazi eta aintzat hartua izateko eskubidea beste behin ukatzen zaigu.

## *Aipatutako guztiagatik, manifestu baten sinatzaileok zera ADIERAZTEN dugu:*

- 1) Bologna Prozesuak Europako eremu unibertsitarioa eraldatuko du.
- 2) Euskal Herriko unibertsitate esparrua prozesu horretan ez da salbuespena izango.
- 3) Unibertsitateak gorago aipatutako funtzio indibidual zein kolektiboak asetu behar ditu.
- 4) Une honetan, euskal eremu unibertsitarioan funtzio horien araberrako aldaketak eman behar dira. Adierazitakoak aintzat hartuz eta egungo unibertsitateetan gauzatzen ari den prozesuaren nolokotasuna aztertuz, gure kezka azaldu nahiko genuke eta euskal unibertsitariook dugun eztabaidatzeko nahiz erabakitzeke ahalmena aldarrikatu nahi dugu.

## *Euskal Herriak Bere Unibertsitateak*

Adierazitakoa abiapuntu bezala hartuta, zera ESKATZEN diogu instituzio publiko, akademiko zein herri ekimenez sortutakoek:

**Euskal Herriko unibertsitate esparruan eman behar diren aldaketen gaineko EZTABAIDA INTEGRALA** burutu dadin baldintzak sortzea; euskal komunitate unibertsitarioaren, hezkuntza komunitatearen eta euskal gizartearen parte hartze eta gidaritzarekin eman beharko den eztabaida.

Horrela, manifestu hau sinatzen dugun unibertsitateetako zein hezkuntza esparruko kideok, orain dela lau urte sorturiko Hezkuntza Deialdiaren baitan bildu zen izpirituari jarraiki, honako DEIALDIA zabaltzen diogu hezkuntza komunitate osoari eta euskal jendarteari:

**Gisa honetako gogoeta baten beharraren baitako aldarrikapenarekin bat egin dezagun eta adostu dezagun Euskal Herriak eta euskal gizarteak nahi zein behar duen unibertsitate erdua.**

Euskal Herrian, 2006ko maiatza.

**Hezkuntza Deialdia**  
Euskal Herriak bere unibertsitatea